

## Promesa

Promesa-zalea euskalduna. Lezo'ko Santo Kristo, Arantzazu'ko Andra Mari, Urkiola'ko San Antonio'en Santutegiak neure itz onen lekuko ta testigu.

Urkiola'ko barriak obeto jakiñik, emengo gora-berak ekarri ta jarriko dodaz emen. Ez da oraingoa, erri guztietan kanta oi dan bertsoa:

*Askok egitan dautso  
San Antonio'ri  
egun batean joan da  
bestean etorri.*

Mesederen bat eskatu bear zala; eurite edo legortek zirala; pralle, monja, soldau edo ezkontzako bideak artu bear zirala edo beste edozein premiñetan, euskaldunak beti jaso izan oi ditu bere begiak Urkiola'ko Santutegiruntz. Alan diño beintzat antziñako bertso onek:

*Oiñez eta ortozik  
egiñik bideak,  
izerdiz eta malkoz  
bustirik begiak;  
santuari eginda  
erregu ugariak,  
etxera doaz pozik  
txiki ta andiak.*

Iru-urrenak eta bederatzi-urrenak egiten dabez alango eliztar sutsuenak;

Bagillan eta Urrillan, batez bere.

Eta "exvoto" deritxoen zin-emoi edo gomutagarriak ekarten dabez, bestalde, Santuagandik mesederen bat lortu dabenak. Ona, zelan diñon bertsolariak:

*Urkiolara ni noanetan,  
an egoten naz begira.  
Zenbat gixajo gatx andidunak  
ara eldu ete dira!  
Makuluak an burdi aundia  
betetako lain ba-dira;  
osaturiko erren gaixoak  
itxitakoak ei dira.*

Ez ziran itxastarrak Urkiola'n azkenengoak, bertsolariaren esanaz:

*Zenbat mirari egin dituan  
San Antonek munduan,  
ez da erreza agertutia  
emen, orain da beinguan.  
Mariñelari lagundu deutse  
itxas-lanetan sarritan;  
orren gomutan txalupak  
eskegita dagoz an bertan.*

Makulu eta txalupak bakarrik ez; bere txistera ekarri eban, orain urte bi, Gernikako pillotari batek, San Antonok mesede andi bat egin eutsola-ta.